



OLABIDE IKASTOLA

HEZKUNTZA PROIEKTUA ERALDATZEN

2019

Sarrera

2009 ikasturteko Hezkuntza Proiektua oinarrian hartuta, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan egindako hausnarketa sakonaren ondorioz, Hezkuntza Proiektuaren eraldaketa egiten hasten gara.

Orain arteko Hezkuntza Proiektuak hiru elementu identifikatzen zituen, balioen lanketa, hizkuntzen trataera eta metodologia definitzea. Hiru hauek zer landu nahi zen definitzen zuten oinarrian, baina zer hori nola landu eta zertarako lanketa garatzearen beharrera eraman gintuen.

Horregatik, eta Ikaslea Protagonista izango dela adierazten badugu, garbi dugu haurra izango dela bere ibilbidea eraikiko duena, bere bizitzaren bidea eraikiko

duena. Bere adin kronologikoa, ezagutza kudeatzeko moduekin, bere ahalmenekin eta bere funtsezkoak dituen bizipenak kontuan hartzea nahitaezko faktoreak bihurtzen dira, hortaz. Haurraren garapena bere JAKITEA, EGITEN JAKITEA ETA IZATEA oinarria du gure Ikastolako Hezkuntza Proiektuak.

Ibilbide honetan, bidelagunak gaude eta familiekin batera haurrak berdinen artean harremanak garatuz bere bidea egingo du. Era berean, eredu izango gara gaurtik etorkizunerako haurrak bere bidea eraiki dezan.

Ikastolan zubirik gabeko ibilbide bat eraikitzea helburu izanda, bidean 2 urtetik 18 urte bitarteko lau etapako eskaintza dugu, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa, hurrenez hurren.

Olabide Ikastolan ezerk ez gaituelako banatzen, jarraipen bat delako, ibilbide bat delako. Bide malgua nahi dugulako, alegia.

Gure egitekoan ikaskuntza irakaskuntza prozesuaren abiapuntua galdu gabe antolatzen dugu Ikastolako hezkuntza proiektua, lau zutabeetan eta hiru ardatzetan garatzen dugularik.

IZATEA, Ikastola izan dena, gaur egun dena eta izango dena zehazten duena.

EDUKITZEA, Ikastolak dituen baliabideak, bidelagunak, familiak eta espazioak.

JAKITEA, gizakiaren ezagutza oinarri, psikologia, antropologia eta neurozientzia dugu.

EGITEA, ikaskuntza irakaskuntza prozesuaren garapena. Nola ikasten dugun modu esanguratsuan zehaztuz.

Lau zutabe hauek ezin dira garatu Ikastolako hiru ardatz nagusienak kontuan hartu gabe: HAURRAK, FAMILIAK eta BIDELAGUNAK.

IZATEA

Olabide Ikastola familia kooperatiba bat gara, Gasteiz eta Arabako lehenengoa eta bakarra. Herri onura publikoko itunpeko Ikastola bat, 1986an EIBko (Eusko Ikastola Batza) eratzaillea, 2010etik EFQM European Award eta guk geuk kudeatua.

1963an 13 ikaslerekin Gasteizko erdialdeko etxe batean hasi genuen gure ibilbidea familia batzuen ilusio, amets eta ahaleginarekin. Handik, Estibalitz Etorbideko beste etxe batean jarraitu genuen gure ametsa; bertan jolastokirik ez genuenez, etxeoko baratza jolastoki bihurtu genuen orduan, eta harrotasunez esan dezakegu gaur egun gure umeei jolastokia baratza izena eta txalapartaren soinua Olabide Ikastolarekin lotzen dutela.

Gaur egun, 1600 haur, 1000 familia eta 200 bidelagun inguruk osatzen dugu Ikastola.

Pertsonaren garapen integrala lortzearen gure gizartearen ezagupenetik hasi eta egungo munduak eskatzen dituen erronketarako prestatuz. Hori helburu izanik, etengabeko formazioan garatuz goaz ilusio osoz Ikastola bat eraikitzeke ametsarekin.

Gasteizko eta Arabako gizartean eragile aktibo izanik gure jakitea gizartearekin partekatuz, euskara, euskal kultura eta gure ohiturak bultzatuz. Ikastolatik mundu zabalera eta mundutik Ikastolara kristau eta gizartearekiko baloreak landuz.

Ikasle izan diren neska-mutilek gure Ikastola maitatzea eta beraien etxea izaten jarraituko duela sentitzea dugu helburu.

EDUKITZEA

Olabide Ikastola Gasteizko erdigunetik lau kilometrora kokatuta eta bidegorri batez lotuta dago. Ikastolan dugun ingurunea paregabea da, mendiz, landaz eta erreka batez inguratuta. Lurraren lanketa zentzuduna dugu oinarri, Ikastolan burutzen ditugun ekintzen bitartez bermatuz.

Ikastola barruan kirol eta kultur ekintzak ikasi, gozatu eta praktikatzeko aukera zabala dugu. Horiek aurrera eramateko barru zein kanpo esparru anitzak ditugu.

- Kirolari dagokionez, igerilekua, tatamia, frontoia, kiroldegia, aterpea eta futbol zelaia daude; kultur ekintzak eta arteak sustatzeko, dantza, musika, zein bide artistiko desberdinetatik jotzeko esparru anitzak ditugu.
- Kirol eta kultur ekintzak burutzeko, denbora malgutasunez kudeatzeko helburuarekin, aipatzekoak dira etapa desberdinetako berezitasunak:

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ostiral arratsaldeak libre izatea eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolak goizez bakarrik izatea.

- Ikastolako eskola egutegitik kanpo Hezkuntza Proiektua garatzeko eta osatzeko asmoz, beste ekintza batzuk burutzen ditugu, udako ekintzak kasu.
- Teknologia berriek garrantzi handia dute Ikastolako egunerokotasunean. Gelak baliabide digital desberdinez hornituta daude, etengabeko teknologiaren berrikuntzan.
- Garraio zerbitzu propioaren bitartez hiriko eta herrietako ikasleen etorrera ahalbidetzen dugu. Beraz, gure haurrek Ikastolara autobusez etortzeko aukera izateaz gain bizikletaz etortzeko aukera ere izan badute; bizikleten presentzia oso handia denez, Ikastolan hauek gordetzeko leku estali handia eskaintzen dugu bertan.
- Jantokia propioa dugu, bertan bazkaria prestatu eta Ikastolan kudeatzen dugularik.
- Zaintza zerbitzua goiz eta arratsaldez eskaintzen dugu familia kontziliazioa ahalik eta hobekien izateko.
- Gurekin batera ikasleek sortutako Ahotsu dugu. Gure egunerokotasunean kultura eta hizkuntza buruan izateko. Olabide Ikastolaren jatorria eta kultura ondarea mantentzea dugu helburu Ahotsurekin.

Ikaslearen ibilbidean lagunduz, bidelagun ugari parte hartzen dugu zerbitzu hauek guztiak aurrera doazela bermatzeko.

Ikastola familia kooperatiba izanik, ezin ahaztu egunerokotasunean daukaten garrantzia, hainbat esparrutan bai parte hartzeko bai erabakiak hartzeko aukera baitute.

Ikastolak duen beste baliabide garrantzitsu bat gurekin elkarlanean aritzeko guk hautatu ditugun adituak dira. Egiten ari garenagatik eta gurea egiteko helburuarekin, Ikastolako arlo anitzetan elkarlanean gabiltza etengabeko formazioaren bitartez. Neurozientzia, neurohezkuntza, hizkuntzen trataera, konfiantzaren pedagogia, matematikaren didaktika, hezkuntza emozionala eta pentsamendu teknikak dira gaur egun denon artean lantzen ari garen arloak.

JAKITEA

Gizakiaren ezagutza ezinbestekoa da. Ezagutza hau, psikologian, antropologian eta neurozientzian oinarrituta dago. Bide honek haurrak ezagutzen laguntzeaz gain haurrak berak ikas-prozesuaren jabe izatea ahalbideratuko du.

Aipatu hiru zientzia hauen ezagutzak lagunduko digu ikaskuntza prozesua hobeto egituratzen, ikaskuntza testuinguru egokiagoak antolatzen. Horrela, ikaslearen ikaskuntza esanguratsua izango da.

Psikologiak, gizakiok nolako jokabideak ditugun ulertzen laguntzen digulako; antropologiak, gizakia soziala delako, harremanak nola garatzen eta egituratzen dituen ulertzen laguntzen digulako eta neurozientziak, burmuinak biologikoki nola funtzionatzen duen jakiten laguntzen digulako.

Aldi berean, adimen anitzen teoria, funtzio exekutiboak, senen teoria, pentsamendu tekniken garapena, emozioen kudeaketa eta alfabetizazioa, erritmo biologikoak eta elkarlanean aritzeko ezagutza kontuan hartu behar ditugu.

Hor ezagutzak lagunduko digu ikaste prozesua benetan esanguratsua eta eraginkorra izaten.

Ikasle bakoitzaren indarguneak aurrean izateak ikasketa pertsonalizatua bideratzen lagunduko digu. Ikastolak dituen baliabideen erabileraren ezagutza sustatuz: denborak, espazioak, taldekatzeak, teknologiak, materialak eta bidelagunaren rola. Azken finean, izaten jakiteko.

EGITEA

Gure egitea gure pedagogia eraikitzea da, gure egiteko estiloa, ikaskuntza irakaskuntzaren aurretik kokatuz, haurra baita ikasten duena. Esan bezala, haurra bere ikaskuntza ibilbide eraikitzearen protagonista da.

Haur bakoitzaren bertsiorik onena garatzen lagundu nahi dugulako, haurren begiekin haurra protagonista izanda, honetatik guztiagatik balio dizuna zu zeu izateko oinarrian jarrita, maitatzen duguna modu esanguratsuan bakarrik ikasi ahal dugulako. Konfiantza gure egitean oinarria delako.

Nire ametsek eramango nauten tokira eta halabeharrez, gure ametsek eramango gaituzten tokira heltzeko asmoz.

Elkarrekin helmuga zehaztuz eta egindako bidez gozatuz, disfrutatuz.

Mundutik gure herrira, gure Ikastolara eta gure Ikastolatik, gure herrira, gure mundura, gizagintza prozesu bat garatuz.

Testuinguru hauek sortuz, bidelagunak, eta ikaskuntza irakaskuntza prozesua programazioen bidetik garatuz.

Gizakia, haurra, ikaslea. Guztiok desberdinak gara elkarbizitzaren oinarrian. Aniztasuna eta inklusioa oinarrian hartuz, ikaskuntza ibilbide pertsonalizatuak eraikiz, haurraren jakitea, egiten jakitea eta izatea landuz lortuko ditugu gure helburuak, Ikastolaren helburuak, gizagintza eta herrigintza sustatzea ikasle profila garatuz.

Ikaskuntza irakaskuntza prozesuan ditugun gakoak:

ZER ikasi, zer irakatsi

Edukiak ezagutzak

Funtzio exekutiboen lanketa.

Norbere ahalmenak adimen anitzak kontuan hartuz.

Pentsamendu teknikak garatuz.

Emozioen kudeaketa landuz.

Hizkuntzen Eleaniztasuna neurozientzia oinarrian diseinatuz.

ZERTARAKO

Europako Hezkuntza Markoak adierazi bezala, kompetentziak landuz, gure haurrak kompetenteak izan daitezten. Ezagutza, hau da, jakitea, testuinguru, egoera errealetan, bizitzan, aplikatzeko JAKITEA sustatuz. EGITEN JAKITEA eta IZATEA garatuz ere bai.

Helburu orokorrak, helmugak planifikatuz eta horiek mailaka, pausoka sekuentziatuz helburu didaktikoetan islatzen direlarik. Ikaskuntza helburuak eta irakaskuntza helburuak desberdinduz.

NOLA

- Taldekatzeak: Elkarlana, taldean aritzeko oinarrian hartuz, taldekatzeak egiteko irizpideak zehaztuz, jokabide patrioiak kontuan hartuz, ahalik eta denbora gehien oinarri gela-taldea elkarrekin mantenduz harremanak, konfiantzan oinarrituta, afiliazio eta toki eta izate senak eraikitzen direlako Haur Hezkuntza hiru urtetik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hirugarren mailara bitartera antolatuta dugu. Ikasturtean zehar ikasleen

arteko elkarketak eratuz, gela berekoak eta maila berekoak eta baita maila desberdinetako elkarketak ere.

- Espazioak anitzak dira Ikastolan inguru naturalak eskaintzen dituztenak. Emozioa sortzen dutenak, espazioari armonia ematen diotena eta sozializazioa naturan sortzeko aukerak ematen dituenak.
- Denborak: Malgutasuna irizpide izanik, antolaketa desberdinak. Irakaskuntzan azkar joateak ikasketa prozesuaren kalitate eza baitakar. Gelan erritmo guztiak kontuan izatea helburu nagusienetako bat izanik.

Espazioak eta denboraren kudeaketak bere tokia hartu dute Ikastolan. Eskola, gaiak emateko guneak irekiak eta aldakorak dira, Ikastolako espazio anitzek era horretan lan egiteko aukera ematen digute. Hezkuntzak denboraren antolaketan lasaitasun uneak, pazientzia uneak behar ditu. Ezinbestez ulergarriagoak izango diren ikaskuntza ereduak lortzera eramango gaitu denboraren malgutasunak.

- Materialak: Esplorazioa sustatzen dutenak, kanal desberdinak aktibatzen dituztenak, zentzumenen pertzepzioa ahalbideratzen dutenak.
- Teknologia: Konpetentzia digitala garatze aldera, euskailu ugari, anitzak eta desberdinak.
- Bidelagunak baliabiderik garrantzitsuenak dira. Baikorrak, positiboak, miresmen begiradak eskaintzen trebeak, erreferente afektibo direnak, ikasleengan konfiantza eta ziurtasuna sustatzen dutenak. Ondoren esploratze eta jakin min sortzaileak direnak, lehena gabe bigarrena ezin lortu.
- Orientabide Saila: Bidelagun rola definizio berdinen oinarrian, bidea eraikitzen laguntzen, norbait bidean erorita min hartuta badago prebentzio, behaketa, balorazio, diagnostiko, pronostiko eta laguntzaren planifikazioaz arduratuko dena. Helburuak mugitu gabe nola prozesu desberdinen bitartez horietara heltzen lagunduz, berriro ere ikaskuntza pertsonalizatu bat garatuz arituko dena.

BEHAKETA EBALUAZIOA

- Prozesua: Prozesua ikaslea baino lehenago ebaluatuz, prozesua ongi zehaztuta, programatua egoteak, ikaslearen bidea, ikaskuntza bidea, esanguratsua ari dela izaten indarrean jartzen duelako.

- Haurra Ikaslea: Haurrak egiten duen ibilbidea ebaluatuz, ebaluazioa eta ez kalifikazioa garatuz, tresna desberdinen bitartez, portafolioa, koadernoak, froga, produktua, azterketa edo eta errubriken bitartez dagozkien egoeren aurrean haurra “ebolatu” eta ez ebaluatu. Honetarako behaketa eta ebidentzia datu bilketa nahitaezkoa da, halaberrez ikaslea ezagutzea, haurra ezagutzea, azken finean.
- Informazioa: Haurraren eboluzioa ikaskuntza prozesuan familiekin partekatuko dugu, familia elkarrizketetan alde batetik, eta ikasturte bukaerako txostenean, bestetik.

| | IZATEA | EDUKITZEA | JAKITEA | EGITEA |
|-------------|--------|-----------|---------|--------|
| HAURRAK | | | | |
| BIDELAGUNAK | | | | |
| FAMILIAK | | | | |

